

PIARRES LAFITTE ZANAREN AZKEN NAIA

KARMEL aldizkari onek lengo zenbaki baten emon eban Abade euskalzale andi sutsu onen eriotzaren barri. Andik egun gutxira eldu jakun Otoizlari, dana illaren oroitzapenez bete. Bertan Lafitte zanaren Testamentua esan geinkeona. bere abade-biotza eta euskal-biotza ondo agerian ipiñi deuskuz.

Irakurleok be gogoan izan gaitu. Eskerrik asko, Piarres.

Azken oreneko xedeak

† Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean.
Andreana Maria, lagunt nezazu.
San Josepe, geriza nezazu.
Jondoni Petri, zuri nago.
Aingeru begiralea, zain nezazu.

Huna hemen hiltzeko orenean gogoan nahi nituzken sendimenduetarik zenbait.

Hasteko, eskerrak Jainko maitari egin dauzkidan grazia guziez; bizi, bataio, abaide, fede, sort-berri, eskola, adiskidantza, apeztasun, osagarri eta bertze.

Zuri nagozu, Aita zerukoa, adimenduz eta bihotzez. Zure Elizan bururatu nabi dut neure mundu huntako aldia, giritxino eta apez gisa.

Eskerrak zor diozkatet mundu huntan lagundu nauten gu-

zieri, buraso, abaide, apez eta bertze bihotz on. Neurenaz ahul eta deus guzti izanez, beti bertzeen behartetan gertatu naiz, bainan aitortuko dit ongi-egileak bakan eskastu zaizkitala, maiz uste ez nuen aldetik jin baitzaizkit ere. Badut beldurra ez diotedan nehuri aski ezagutza erakutsi.

Neure bizitze gheicna gazteen artean ereman dut. Entseatu naiz beien konprenitzerat, argitzetar, gizontzerrat, girixtinorentzerat. Ez dakit baatik neure xede onak bururatu ditudan: esku batez arakitzen nuena ez ote nuen bertzeaz desegiten, etsenplu on eskasaz. Barka bezadate.

Liburu eta aldizkarietan jende asko aipatuz hust frango egin duket abulegi edo berdin zorrotzegi izanez. Barkamendu galdez itzultzen nitzaie kolpatu dituzkedan guzteri, nihaurek barkatzen deiet neure kolpatzaileri.

Heientzat eta hala-hala ere bizian noizbait kurutzatu ditudanentzat eskaitzen diozkat Zeruko Aitari, Jesusen medioz, hiltzeko orenak dakarzen oinaze mota guztiak.

Azken oren hori izan bedi ene azken meza: «Buru apalik eta bihotza urrikiturik nagola, onhar nezazu, Jauna, eta egungo oparia atsegin dakizula».

Kalbarioko Jesusekin eskuz-eskuz azken meza hori nahi nuke eman:

- munduko arima guzientzat;
- girixtinoen batasunarentzat;
- gizonen arteko bakearentzat;
- familien baitango goxoarentzat;
- Eliza katolikoarentzat;
- gure eskualdeko girixtinoentzat, Elizari jarraik dakizkien;
- Euskal-herriarentzat, bere nortasuna atxik dezan;
- Euskalzale, Euskalzain eta Euskalarientzat;
- «Herria» astekariaren egile eta irakurtzalentzat;
- Izan ditudan erakasle guzientzat eta ene bibliotekako liburu-egile guzientzat;

- Ene ikasle eta irakurle guzientzat;
- Ene abaide, adizkide, ongi-egile, lankide bizi eta hil guzientzat;
- Uztaritzeko Semenarioko erakasle, ikasle, serora eta sehi guzientzat;

Agian goiz ala berant, denak Jainkoa baitan bilduko gira, salbu eta dohatsu. Ikus arte. Uztaritzen emana 1967-ko urriaren 20-an.

Piarres Laffite apezak.